

IRITZIA

Koido Gaidona

FEWPORTAVI

Musika ikasteko
adinik ez

UDALETXETIK

Albitxuri gune
industrialak izango da

BERBETAN

Felix Ansola,
txistuari eskainitako
bizitza

KIROLA

Iñaki Konde,
Madrileko 100 km.ko
lasterketan

BARREN

1998ko apirilaren 3a
V. urtea 231. zkia.

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A

Ansolatarrak Txistularien sei belaunaldi



“Etxeberna futbolian dana Ansolatarrak txistuan ginan” Felix Ansola txistularia



Musika ikasteko adinik ez

Musika ikasketak umetan hasi behar diren ustea daukagu gehienok. Hala ere, badira zenbait pertsona, urteek aurrera egin ahala erabaki dutenak solfeo eta instrumentoren bat jotzen ikastea. 28, 40 edo 82 urte izanda ere, inoiz ez da berandu benetan gogoia eta ilusioa badaude edozein ikasketa hasteko. Baita musika ere. Elgolbarko Inazio Bereziartua Musikeskolan badira hainbat heldu urteak daramatzatenak musika ikasten eta inork ez du damurik izan. Aitzitik, jakinez gero, agian lehenago animatuko lirerateke besazpian karpeta hartu eta do, re, mi fa, sol, la eta si notak konbinatuz sor daitekeen guztia ezagutzera. Sarri esan izan dugun bezala, ikasteak ez du adinik.

Rosa Andueza eta Josune Aldazabalek soinua jotzen dute. Urteak daramatzate biek Musikeskolan baina bide desberclina jorratu behar izan dute iritsi diren tokian egoteko. Izan ere, Josunek umetan solfeo ikasketak egin eta gero, urtebetez soinua ikasten egon ondoren Iaga beharra izan zuen. Orain dela 5 urte erabaki zuen soinua jotzen ikastea berriz ere, "alaba eskolan hasi zenean eta denbora gehiago izan nuenean. Beti gustatu izan zait soinua. Uste nuen soinuarekin batera eta bestera ibiliko nintzela, jendea alaituz eta horregatik aukeratu nuen instrumentu hau. Gehien gustatzen zaidalako edo, behintzat, alaiena delako niretzat". Rosaren esperientzia oso bestelakoa da. Emakume honek kontatu digunez, "txikitan, Goierrin bizi nintzenean, gogoan daukat nola josten ikastera joaten nintzen Tolosara trenez. Nirekin

batera beste lagun bat soinua ikastera joaten zen Donostiara eta izugarritzko inbidia ematen zidan. Beti gustatu izan zait musika baina gure etxean horrelako gauzei buruz ez zen hitz egiten. Beste garai batzuk ziren". Gerora, Rosa ezkondu eta seme-alabak izan zituen. Bere semea solfeoan hasi zen eta soinua ikasteko esan zioten etxean, "betidanik gustatu izan zaidan instrumentua da eta nik ezin izan nuenez, guxtienez semeak ikastea nahi nuen".

Umeekin solfeoan

Duela bost urte inguru musika ikastea erabaki zuen Rosak. "Ume txikiekin ibili nintzen solfeoan. Ha-

sieran arraroa egiten zitzaidan eta arbera atera behar nuenean lotsa pixka bat ematen zidan baina moldatu nintzen". Urtebetera soinuarekin hasi zen, "etxean, ahizpak berehala jartzen ditut pasodoble eta tangoak dantza-tzen". Josunek aitortu digunez gero eta zailagoa da maila mantentzea, "gero eta gehiago konplikitzen da dena eta dedikazioa eskatzen du. Egunero praktikatu behar duzu eta instrumento bat jotzeko kontzentrazioa behar duzu, ezin zara beste zerbait egiten egon, ez telebista, ez musika ez beste ezer eta gero eta maila altuagoa denez, kostatu ere gehiago kostatzen da eta, noski, gehiago landu behar duzu. Gainera, ez daukazu umeen arintasuna atzamarretan eta esku biek jo behar duzunez gehiago kostatzen zaizu. Haurren sikomotrizitatea ez daukagu eta burua ere poliki-poliki motel-

Birjirtia eta Rafael Conde, piano ilcasleak.



Felisa Bergureixe, piano ikaslea eta Josune Aldazabal, soinua ikaslea. Andres Elizondok flauta eta pianoa ikasten ari da.



tzen doa'. Dena dela, Rosak ondotxo azaldu digu berarentzat soinua jotzeak suposatzen duena, "niretzat oso garria da, eguneko tentsio guztiak ahazten ditut soinua jo-tzen dudanean. Gainera, afizioa da eta ez dugu frogarik pasatu behar. Gusta-tzen zaigulako ikasten dugu eta horrek lasaitasuna ematen dizu. Niri behintzat ez dit baterre alperrik ematen soinua jotzeak".

82 urterekin pianoa jotzen

Rafael Condek 50 urte ditu, Birjiniak Barrenetxeak 37 eta Felisa Bergaretxek 82. Hirurak daude pianoa ikasten. Rafaelek umetan eman zituen lehen pasuok pianoan. Izan ere, gaztetan solfeo ikasi eta urtebetez aritu zen pianoan. Hala ere, egoerak hala behartuta, afizio hura laga behar izan zuen eta duela urtebete arte ezin izan dio berriz ere heldu. Pianoa ez zaio gainontzeko instrumentuak baino gehiago gustatzen baina, "aukera izan nuen pianorekin hasteko eta horregatik jarraitu dut". Zailtasunik ere baduela aitortu digun arren, "gustura etortzen bazara zailtasunik handienak ere txikiak iruditzen zaizkizu". Felisak pianoa instrumentorik zailena dela uste du, "bestlak baino zaila da baina neri asko gustatzen jata. Hori bai, etxian dana ein bihar dot, garbitxu, jatekua ein... Ho-



Rosa Anduewk
5 urte
daramatza
soinua ikasten.

rregatik batzuetan zaila da denboria etaratzia pianua jotzeko baina ahal dotenian hasten naiz edozer jotzen, Andre Madalen eta holakuak".

Belarri gogorra

Birjiniak ez zekien solfeorik eta musikeskolan hasteak lotsa pixka bat ematen zion, umeen artean egon behar ko baitzen. Horregatik, zenbait klase partikular hartu zituen, "nere ritmora ibili nitzan eta oso gustura". Pare bat urte daramatza pianoarekin. "Kuriosidadia nakan jakitzeko zer zan mundu hau. Txikixa nitzanian nere lagun asko

txistura eta juten zian baina ni ez. Beti euki naban gogua hori dana zer zan ezagutzeko eta ikasketak amaitxu eta lanian hasi nitzanian, denbora pixka bat nakanez, hobby bezela hartzia erabaki naban". Zailena hasiera egin zitzaion, "nik uste dot belarrixa nahiko gogorra dakatela eta behin adin batetik aurrera entzumena hezitzia askoz zaila da. Askotan ez dot bereizten nota bat noiz dixen gora eta noiz behera. Hortik hasita begira zenbat denbora bihar izan doten egunero. Hala ere, adin honetan hasitxa itxen ditzuzun aurrerapenak gehixo baloratzen ditzuzu. Oso motibatuta eta gustura ibiltzen zera".

Andres Elizondok 33 urte ditu eta bere kontura hainbat instrumentu jotzen ikasi du: aho-soinua, alboka eta baita flauta ere. "Flautia erosi naban oin dala 9 urte eta, ez solfeo ez beste ezer sekula ikasi gabe, hasi nitzan jotzen. Oin dala bi urte Musikeskolan eman naban izena eta oin konturatzen naiz hasieratik hasi izan banintz oin askoz gehixo aurreratuko nabala. Teknika gehixoa dakat oin, Iehen gauza asko ez nakixan zela eitxen zian, ez postura ona zein zan ez ezer". Batez ere haizetun instrumentuak gustatzen zaizkio baina aurren pianoa ikasten hasi da, "saxoa ere gustatuko litzaidake baina danera ezin naiz ailegau".

Ana Ansola piano irakaslea da. Berak esan digunez erabat desberdina da ikaslea haurra edo heldua izatea, "beste era bateralplanteatu behar duzu klasea eta bakoitzaren behar, nahi eta gaitasunaren arabera egokitu". Helduentzat hobya den neurrian, irakasleak ere horretaz ohartzen dira, "eta beharbada gutxiago exigi-tzen diezu haurrei baino". Anak ez du uste helduak torpeagoak direnik musika ikas-

Ikasleei egokitutako klaseak

ten, "pertsonek arabera da hori. Edozein da gai musika ikasteko baldin eta gustatzen bazaio eta ilusioz hasten bada. Jende askok esan izan dit gustatuko litzaiokeela baina... Nahi duenak ahal du, edozein adin izanda ere. Be-

gira Felisa, 82 urte ditu eta ikaragarria da zer nolako maila hartu duen. Umetan hasi izan balitz ez dakit noraino iritsiko litzatekeen". Anaren hitzetan, "kontua bakoitzari gustatzen zaiona eskaintzea da. Rafaeli *Beatles* eta antzekoak gustatzen zaizkio. Felisari pasodobleak eta tangoak eta Birjiniak nahiago du musika klasikoa. Gustura etor daitezen, nahi dutena jotzeko aukera ematen diet".

21111 ANCHUSTEGUI sa
=1111 ZERANIKAK

Erakusketa eta bulegoa:
Antonio Arriltaga, 6-8
behea
83 Postakutxa
Tel: 74 33 44 74 06 92
Faxa: 74 37 11

Biltegia:
Arregitorre, 10 - 14 behea
Tel. 74 20 38 - 74 23 71
20870 ELGOIBAR
Gipuzkoa

POL-POL

TABERNA

San BarioIome, 19 Tel. 74 08 74 - ELGOIBAR

• **Odoi Emaileen
Elkartearen eguna**

Apirilaren 26an, Gipuzkoa-ko Odol Emaileen Eguna ospatuko da Bergaran. Egun honetan 25 alditan odola eman duten gizon eta emakumeak sarituko dituzte zilarrezko garaikurra emanaz. Hamaika lagunek osatzen dute aipamen berezia jasoko duten elgoibartarren zetrenda: Consuelo Prieto, Jesus Insausti, Juan Jose Rumayor, Santiago Sastre, Sabin Lariz, Ignacio Astigarraga, Jesus Alvarez, Agus San Martin, Rosa Maria Coca, Celso Romero eta Jose Luis Ramon. Goizean hasita meza, Uda! Musika Bandaren konzertua eta eguerdian lagun arteko bazkaria izango dute Labe-garrietako kiroldegian. Bazkalostean nahi duenak dantza egiteko aukera ere izango du. Bazkariaren zenbatekoa 3.000 pta. da. Odol Emaileen Egunean parte hartu nahi duenak apirilaren 13a baino lehen eman beharko du izena bi telefono hauetan: Ramon Maiztegi 74 11 90 edo 74 13 79 (azken honetna arratsaldeko 19:00etatik 20:00etara) edo Begoña Izagirrereren 74 05 51 zenbakira deituta.

• **Bi beka
ingurugiroari
buruzko ikerketak
egiteko**

Deba Beheko Mankomunitateak 2,5 milioiko bi beka antolatu ditu ingurugiro arloan espezializatutako ikerketak egiteko. Beka hauen bitartez laguntza eskaini nahi zaie arlo hauetan lan egin rtahi duten eskualdeko gazteei. Bekak eska-tzeko epea maiatzaren lean arnaituko da. Lehendabiziko bekan landu beharreko gaia isurki eta hondakin-uren azterketa teknikei buruzkoa da. Bigarren bekan industriolio eta lubrikatzaileen inguruko xehetasunak landu beharko dira.

**Prozesioak egingo dira
Erramu eta Pazko igandean**

Aste Santuan elizkizun bereziak izango dira

Aste Santuaren atarian gaude eta elizak egun handiak ospatzen ditu. Domekan, hilak 5, Erramu Eguna da. Urtero bezala, Erramuen prozesioa eta bedeinkazioa egingo da. Goizeko 11:00etan Santa Klaratik Plaza Handira prozesioa iritsiko da, Jesus asto gainean bere 12 apostoluekin Jerusalem-era sartu zen unea gogoratuz. Parrokiako atarian, hainbat haurrek Jesusi harrera egin ostean, erramuak bedeinkatuko dira. Jarraian prozesioa hasiko da San Bartolome kaletik zehar, Errosario kalea zeharkatu eta Plazan amaitzeko. Ondoren, meza izango da

Jesus eta 12 apostuluaren partehartzearekin. Ohitura hau herriko Katekistek sortu zuten 1978 urtean, ordutik gaurdaino mantendu da eta Aste Santuaren atarian egiten den ospakizunik berezietakoa da.

Bigarren prozesio bat ere egongo Pazko Igandean izango da, apirilak 12. Goizeko 11:00etako mezaren ostean, Amabirjinaren eta Jesusen irudiak Plazan elkartuko dira. Ondoren prozesioan joango dira San Bartolome eta Errosario kaletik barrena Plazan amaitzeko.

Aste Santuko elizkizunak

Aste Santuko elizkizun eta ospakizun bereziak hilaren 6, 7, 9, 10, 11 eta 12an egingo dira. Aitortzak, Jesusen azken afaria, Jaunaren aurreko ospakizuna, Jesusen Heriotzaren ospakizuna, Gurutz Bidea, Pazko Bijilia eta Pazko Igandeko meza eta prozesioa izango dira aipatutako ospakizunak. Parrokian, Santa Klaran, Madalan eta San Lorentzon ordu ezberdinetan egingo dira. Guztien berrin 25. orrialdean emango dizuegu.



Muguruzatarren arkuak argiztatu dute

Fokoak "antibandalikoak eta hermetikoak" dira

skubideen enparantzaren sarreran dagoen Muguruzatarren arkuari argizatze sistema jarri diote. Jose Mari Ouesagasti Hirigintzako buruak azaldu duenez, "iluminazio esperimentalak dala esan leike. Argi desberdinekin probak ein diaz, leku batian eta bestian jarri diaz kokapen egokixenakin asmau arte". Argiak jartzerako orduan kontuan hartu dira inguruko etxebizitza eta dendak. Auzokoei trabarik ez egiten saiatu dira bereziki. Horrela bada, joan den astelehenean argiak jartzeko

lanak amaitu zituzten Udaleko elektrizistek. Lau argi puntu jarri dira lurrean enpotratuak, bi arkuaren aurrealdean eta beste bi atzealdean. Hauek argi zuriak dira. Bestalde, atzeko aldean dauden leiho modukoetan beste argi mota bat jarri da, argi horia. Argitapenerako erabi litako fokoak Sehr&ler etxe belgiarrekoak dira eta 3.500 kiloko pisua jasan dezakete, baita auto batek



zapaltzea ere. "Antibandalikoak eta hermitikoak diala esan leike".



Ikastolako 175 lagun Hoxoten

Ikastolako adin guztietako ikasleak eta hauen gurasoak, 175 lagun guztira, Xoxoten izan ziren joan den domekan. Mendi buelta egiteko asmotan joan ziren eta aparteko giroa izan zutela esan digute. Norberak eramandako bokadiloarekin eta bertan hartutako saldarekin hamarretakoa egin eta gero, Xoxotetik etxe aldera abiatu ziren. Argazkian, Xoxoten bildutako haur eta guraso taldea.



Herri Eskolako ikasie eta gurasoen mendi irteera

Herri Eskolako Gurasoen Elkarteak antolatuta, ikastetxe-ko 18 guraso eta 30 hurrek mendi irteera egin zuten Sallobente auzoan zehar. Elgoibartik irten eta Goenaga, Bolueta, Zulueta eta Azaola baserriak zeharkatu ondoren San Lorentzora iritsi ziren. Egun benetan polita pasatu zuten, ingurua ezagutu, kanpoan bazkaldu eta egun ederraz gozatzeko aukera izan zutelarik. Datozen hilabeteotarako beste irteera batzuek egingo dituzte: Goenaga eta San Lorentzora mendi buelta, Urkiolara egun pasa, Debako hondartzara eta Zumaia eta Elorrixa ingurura. Honez gain, Atxutxiamaika Begirale Taldearen ardurapean, Haur Eskolako eta Lehen Hezkuntzako I. eta 2. mailako ikasleekin jolas tailerrak egingo dituzte ikastetxean bertan datozen hiruhilabetetik aurrera.



Udaberri Jai arrakastatsua

Giro ezin hobea izan zuten aurreko zapatuan, martxoak 28, Elgoibarko Izarrako Atxutxiamaika Begirale Taldeak antolatutako Udaberri Jaian. Egitasmoa arratsaldeko 18:00etan hasi zen, eta 20:00ak arte 100 haur inguru Plaza Handian jolasean aritu ziren. 20:00ak aldera, afaria izan zuten bakoitzak eramandako bokadiloarekin eta, bukatzeko,

Balzola anaiekin erromeria izan zuten. Antolatzaileen esanetan, dena oso ondo irten zen, eta primeran pasatu zuten.

• Urruñako Ikastolari lagunlia

Elgoibarko Izarratik esan digutenez, Urruñako ikastola-koak diru premian daude ikastola berria eraikitzeko. Urruña Iparraldean dagoen herri txiki bat da, Hendaia ondoan, Dirua behar dutenez, kanpaina bat jarri dute martxan. 1.000 harri saldu nahi dituzte, ikastola eraikitzeko behar diren harriak, alegia. Harri bakoitzak 10.000 pta. balio dituzte 10 milioi Iortzea da helburua. Beraz, Elgoibarko Izarrak dei egiten die elgoibartar guztiei Urruñako ikastola eraikitzen laguntzeko. Laguntza eskaintzeko Elkartera deitzea nahikoa izango da (74 16 26, Imanol). Deitu eta esan zenbateko laguntza emateko prest zaudeten, hortik aurrerakoak Elkarteak egingo baititu. Deiak jasotzeko azken eguna apirilaren 30a izango da.

• Karakaten eraikitako telefonikako plataforma kentna agindu du Udalak

Telefnica M6viles S.A. enpresa iazko abenduan hasi zen Karakate gailurrean telefono mugikorren antenentzat plataforma eraikitzen. Obrak bat ere baimenik eskatu gabe eta ezer esan gabe hasi zituzten eta horregatik, Elgoibarko Udalak, plataforma kentzeko agintzeaz gain, espediente zigortzaile bat marixan jartzea erabaki du. Telef6-inea M6viles enpresak 20 metroko altuerako antena eraikitzeko asmoa zuen Karakaten.

• 1955eko kintoen bazkaria

Datorren dornekan, hilak 18, 55eko kintoen bazkaria egingo da. Eguerdiko ordu batean meza izango dute Santa Klarako komentuan hildako guztien alde. Eguerdiko 14:30ean lagunarteko bazkaria izango dute Gorbea jate-txean. Joan nahi dutenek Antonio Sueiro edo Jesus M. Etxeberriarekin harremanetan jarri edo Gorbean bertan izena eman.

125.000 metro karratuko gune industrialak eraikiko da Albitxur

Metro karratua 56.000 pezeta inguruan jarriko da salgai

Elgoibarko Industrialdea (Elgoibarko Udala, Spri-Lur eta Gipuzkoako Aldundiak osatua) da Albitxuri gune industrial bihurtzearen aldeko apostua egin duena. Epe laburrera, 2.000 milioiko inbertsioa egin ondoren, Albitxuri 125.000 metro karratu izango dituen gune industrial bihurtuko da. Guztira 40.000 metro karratu jarriko dira salgai metro karratuko prezioa 56.000 eta 60.000 pezeta bitartean izango delarik. Dagoeneko 20.000 metro karratu erosteko eskaera egin dute zenbait enpresek.

Arau subsidiarioak aldatu behar dira

Albitxuri gaur egun ai-

sialdi eta kirolerako gune bezala dago izendatua. Hor-taz, beharrezkoa da plan partziala egin eta arau subsidiarioak aldatzea gune industrial bihurtzeko. Mementu honetan bideragarritasun ikerketa egiten ari dira eta azterketa geotekniko bat ere martxan jartzeko asmoa dago. Izan ere, egokitze lanak urtea amaitu aurretik hasi nahi dira. Obrak terrenoak saldu ahala egingo dira eta hasi pabilioiak eraiki eta ingurua urbanizatzen hasiko dira.

433 milloiko kapitala

Printzipioz 433 milioi pezetako kapitala dauka Elgoibarko Industrialdeak lehen obrekin hasteko. Kopuru hau hasiera batean Deba



Dagoeneko 20.000 m² erosteko eskaera egin da.

ibaiaren mozketak egingo balitz sortuko litzatekeen lur industrialean inbertitze-ko zen. Hala ere, guztiok dakigun bezala, mozketak atzera bota da eta Elgoibarko Udalak Albitxuri proposatu zuen lur industrial be-

ria sortzeko alternatiba bezala. Gaia aztertu ondoren bai Gipuzkoako Aldundiak eta baita Spri-Lur-ek ere oniritzia eman zioten lekuari, Deba Behean lur industrialak sortzeko tokirik aproposena delakoan.

• Ur, zabor eta estolderiaren gaineko zerga

1998ko hirugarren hiruhilabeteko ur, zabor eta estolderiaren erre-ziboak helbideratu gabe dutenek apirilaren 25ean ordain dezake beranduenez. Udaltxeko Dirubilketa bulegoan edo edozein banketxetan egin daiteke ordainketa gotzeko 11:00etatik 13:00era bitartean. Aipaturtko epea pasatzen denean, ordaindu gabekoei %20 gehiago kobratuko zaie.

• Udaltzaingoak Gazte Asanbladak egindako salaketak ukatu ditu

Elgoibarko Udalak ukatu egin ditu Gazte Asanbladak euren kontra esandakoak, "faltsukeriak, manipulazioak eta maltzurkeriak" direla adieraziz. Udaltzaingoaren hitzetan, "delitu ekologikoak ezkututzen ditugula eta bakezaleen aurka indarra erabiltzen dugula gaineratu izan digute eta hori frogaezina da. Izenik eman nahi ez duten pertsonen oinarri gabeko salaketak dira".

Prensa ohar baten azaldu dutenez, "gezurra da ustezko delitu ekologikoak ezkutatu ditugula. Aitzitik,

1997ko azaroaren 19an Deba ibaiaren olioa ikusi bezain pronto jakinarazi zuen Udaltzaingoak. **Gazte Asanbladak**, berriz, lau hilabete beranduago kaleratu du gertaera salaketa fantasmagorikoekin".

"Jarrera agresiboa"

Udaltzaingoaren instrumentalizazio politikoari buruz esan dutenez, "herriarren zerbitzura dagoen talde profesionala gara eta Elgoibartarrek aukeratuak ordezkaritza politiko guztien menpe gaude, alderdi batekoak edo beste-koak izan".

Bukatzeko, otsailaren 27ko plenoan izan ziren gatazkei buruzkoak argitu nahi izan ditu Udaltzaingoak. Izan ere, Gazte Asanbladakoek "bakezaleen aurka neurrigabe-ko indarra erabiltzeaz" salatu zuten Udaltzaingoak. Honen aurrean Udaltzaingoren erantzuna "protesta hartan parte hartu zutenek jarrera agresiboa" izan zutela izan da. "Udaltzain bat jo nahi izan zuten patin bat jarri bere buruaren gainean. Egoera horrek auto-defentsa neurri minimoak hartzera behartzen du".

v\ir\r/livv\vvvvyk v

10SU MUGERZA:

"Sukaidaritza antzerkia bezalakoa da"

Iosu Mugerza San Migel bailarako Belaustegi baserrian jaio zen. 13 urte zituela sukaldaritza munduan lehen hastapenak eman zituen eta ordutik hona ez da geratu. Izan ere, Madrilen 14 urte luzez bizi izateaz gain, Japonian eta Mexikon ere egin izan ditu egonaldi luzeak. Gaur egun 34 urte ditu eta bere baserria berreraikitzen dabil. Bertan jatetxea zabaltzeko asmoa dauka. Punta-puttako sukaldaritza eskaini du hemendik gutxira.

- **Sukaldeko saltsak beti gustatu izan zaizkizu.**

- Bokazioa izan dut bertan. 13 urtekin hasi nintzen Donostiako jatetxe batean eta bertan bete nituen 18 urte. Donostian ikasi nituen sukaldaritzako alde gogorrenak. Ondoren, Elgoibarko Gorbea jatetxean aritu nintzen urtebetez eta handik Madrilerara joatea erabaki nuen.

—**14 urte egin dituzu Madrilen, ez?**

- Hala da, bai. Niretzat sukaldaritzan maisurik handiena denarekin ibili nintzen, Irizarrekin hain zuzen ere. Aleala 'Hoteleko zuzendaria zen bera.

Beranduago Euskal Etxean egin nuen lan eta han nintzela atera zitzaidan Japoniara joateko aukera.

—**Nola izan zen hori?**

- Beti erakarri izan nau izugarri ekialdeak eta bertako sukaldaritzak. Kasualitatez, Madrilen nengoela ekialdeko emakume bat ezagutu nuen. Bera Japonian jatetxe bat irekitzeko asmoarekin zebilen eta chef bat behar zuen. Niri eskaini zidan aukera eta 20 egunetan, Madrilen egotea Japoniako kultura eta ohitura berrietan aurkitu nintzen. Japoniara iritsi nintzenez jatetxea oraindik obretan zegoen. Ni arduratu nintzen bai dekoratuaz baita guztia martxan jartzeaz ere. Hasieratik amaiera arte kontrolatu nuen prozesua.

—**Japonia, Madril, Balentzia...**

- Eta Balentziatik Mexikora joan nintzen, Puerto Vallartara. Yateen Klub batean egin nuen lan. Bi urte pasa nituen bertan eta asko mugitu nintzen, Los Angeles-era eta abar. Beti saiatu izan naiz nire lanbideari lotuta ahalik eta gehien bidaiatu eta gauza berriak ikusi eta ikasten, ikastaroak egiten. Munduan zehar ibiltzea laborategi batean sartzeari bezala da, handik eta hemendik hartu eta gero zure estiloa sortzen zoaz.

- **Zure jatetxe propioa**

ere izan omen duzu.

Bai. Mexikotik itzultzean sukaldaritza eskola pribatu baten jatetxean egin nuen lan Madrilen, irakasle eta sukaldari bezala. Gero, nire jatetxea zabaltzea erabaki nuen eta lau urtez egon naiz horrela, oso gustura. Bezeroekin oso harreman berezia sortzen da. Azken finean sukaldaritza antzerkia bezalakoa da, zuzenean egunero-egunero jendearekin erlazioan behar duzu eta kalitate oneko jakiak eman behar dizkiozu. Sarri etortzen den bezeroari gauza berriak eskaini behar dizkiozu eta sekula ez dakizu gauzak nola aterako diren, ez daude bi egun berdin.

— **Elgoibarren jatetxea irekitzekotan zara.**

- Bai, baserrian obrak hasi ditugu eta goitik behera berritzen ari gara. Baserria nire jaioterxea da eta ingurua asko gustatzen zait, bizitza kalitatea eskaintzen du eta hori asko baloratzen da. Nire jatetxean ez dut gainontzeko lekuetan jaten dena eskainiko, zerbait desberdina eman nahi dut. Ohiko sukaldaritzaz gain, sofistikatua ere egongo da aukeran, sukaldaritza orientala noizean behin, frantsesa, italiarra.... Etxean egindako erreposteria, ehiza... Denetik eta denen gusturako.




Euskadi ezagutzeko aukera nekazaletxeetan

Aurtengo Fitur ferian, Euskal Autonomi Elkartek nekazalturismoari buruzko hainbat ibilaldi aurkeztu zituen. Izan ere, hemendik aurrera, bidaia agentzietan gure inguruetako hainbat eta hainbat txoko aurki ditzakegu. Prezio merke bat ordainduz paisaiak ikustezaz gain, jatorduak eta ekhztza desberdinak ere aukeran izango dira.

Moda-modako turismoa bihurtu da azken urteotan nekazalturismoa. Nekazalturismoa dela esaten da baserriak turismoari begira egokituta daudenean. Era honetara, baserrietako bizi-modua ezagutu eta bultzatzeaz gain, Euskal Autonomi Elkartea indartu eta ezagutarazten da.

Izarr ere, aipaturiko gidan jasotzen diren ibilbideak Euskadi promozionatzeko pentsatuak daude. Egonaldiak baserrietan, landa-giroko hotel txikietan, mendi etxeetan, aterpeetan edo kanpinetan egin daitzke, guztiak daude aukeran.

Ibilbideek 7 egun eta 6 gauko iraupena dute eta tokiaren arabera prezioa desberdina da, kasu guztietan gosariak eta bazkari tipiko bat sartzen direlarik. Zenbait lekutan sukaldea doan erabiltzeko aukera ere eskaintzen dute.



ELISKADI BARRENETIK
PAIS VASCO
EN TODOS LOS SENTIDOS

Asteburueta eskaintza berezia

Aste osoko iraupena duten ibilbideez gain, astebukaerako eskaintza bereziak ere proposatzen ditu gidak. 7.900 pezetagatik bi eguneko egonaldia eta gosariak goza dezakegu Euskadiko nekazalturismoko baserri edo hotel batean. Afari tipikoa ere sartzen da prezioan eta eskaintzan sartzen diren jatetxeetan, artisautza eta produktu tipikoak erostean eta bestelako ekintzak egiteko orduan %10eko deskontua dago. 100 nekazaletxe eta hotel daude aukeran Euskadiko txoko guztietan zehar sakabanatuak.

Eskaintza berezi honek, bai ibilaldiena baita asteburuena ere, urtarrilaren letik uztailearen 15era eta irailaren 15etik aben-

duaren 31ra bitartean irauten du. Gainontzeko datetan prezioak desberdinak dira.

Ardoaren ibilbidea

Gidak jasotzen dituen ibilbide guztiak dira ikusgarriak. Guk horietako baten berri emango dugu, ardoaren ibilbidea deiturikoarena, hain zuzen ere. Gai nontzekoak bezala 7 eguneko iraupena dauka. Ibilbide honetan zehar Errioxako ardoa eta txakolia nola egiten diren ikusi ahal izango da. Ibilbide honek bamekaldea eta kostaldea konbinatzen ditu. Izan ere, Orío, Zumaiá, Zarautz, Getaria eta abar bisitatzeaz gain, Loiola ikusi eta gero, Errioxarako bideari ekingo zaio. Bertan, ardanegi tipikoak bisitatzeko aukera izango da,

Laguardia bezalako herri ederrak ere ikusgai izango dira edo Labastida... Bizkaiako kostaldean ere ibili ahal izango da Annintza, Plentzia edo Bakio hethetako hondartza ikusgarriekin eta horietan itsas kirolak praktikatzeko posibilitatea dago. Bizkaian kokatzen dira, baita ere. San Juan de Gaztelugatxe zoragarria eta Butroiko gaztelua. Gainera, Bilbotik gertu egotean, Guggenheim museoan ere ibilalditxoa egiteko parada izango da.

Ibilbide honen zenbatekoa 22.500 pezetakoa da eta prezioan sartzen dira 6 gauko egonaldia gosaria eta guzti, bazkari tipiko bat, ardanegietara bisita eta ardoa edateko aukera, eskaintzan sartzen diren jatetxeetan etra ekintzetan %10eko deskontua eta behar beste informazio.



SAN PEDRO baserria

Eguraldi zoragarria tokatu zitzaigun San Pedrorra igo ginenean. Zerua oskarbi zegoen eta paisaia zoragarria ikustatzen zen goitik. Iritsi ginenean jende gutxi zegoen, gazte batzuk frontoian pala partidu hatean, enzakume batzuk eguzkitan eserita, pasiaran heste batzuk... Asteguna zen. Asteburuak oso bestelakoak dira horrelako giro aparta egiten duenean. Jangela gainezka izaten dute San Pedro baserriko jatetxean.

Bailarako gainontzeko baserri guztietan bezala, hemen ere abelazkuntza, esne salmenta eta lurren ziren nagusi. Baina, 1952 urte inguruan baserrian taberna eta jatetxea zabaltzea erabaki zuten. Garai hartan baita ere, San Pedroko elizan kokatzen zen eskolako irakasleek baserri honetan hartzen zuten ostatu. Hasiara batean edari eta janaria kaletik baserrira igotzeko ganadua erabiltzen zuten San Pedro baserrikoek. 1968. urtean, berriz, baserri zaharra goitik behera berritu zuten eta duela 11 urte inguru, lehen ikuilua zegoen lekuan jangela egin zuten.

Eliza ondoan egon eta...

Jesus Mari Arrillagak gogoan du nola umetan gurasoek baserrian bertan taberna iriekitzea erabaki zuten, "elizia onduan dao eta meza entzun eta gero, jendia askotan sartzen zan baserrira zeozer hartzera eta pentsatu genduan ondo egon zitxekeela tabernia zabaltzia. Hasi ginan eta gaur arte". Hala ere, ganadua eta taberna izan zituzten baserrian hainbat eta hainbat urtetan. Orain 11 urte behiak kendu eta ikuiluan jangela handitzea erabaki zuten. Jesus Mari esan digunaren arabera, "bixak ezin zian ondo konpaginau eta baserri txik bizimodua etaratzia gaitza dauanez, taberniakin segitzia pentsatu genduan".

Etxeko sukaldaritz

San Pedro jatetxean etxeko sukaldaritz eskaintzen dute, hau da, urteetako esperientziaren craginez ikasitakoa lantzen dute. Eta horrek badu bere xarma. Astegunetan inor gutxi ibiltzen da taberna bueltan, "pasiaran ixotzen dan bat edo beste, auzoko baserri txarrik...". Baina asteburuetan egoera oso bestelakoa da, "segun eta ze egualdi



Estresa? Zer da hori?

Beste lanbide asko bezala, tabernakoa ere nahiko estresantea dela esaten da askotan. Jesus Marien hitzetan, "domeka batzuetan lan askokin ibiltzen gera eta danera ixa ezin ailegauta baina ostantzian, behin astelehena etorritxakuan, nahi beste denbora dakau trunkil egoteko. Neri ofizinarik lanak ez dia inbidixarik ematen. Hemen goixan, tabernan bat geratuta bestiak libre daka buelta bat ematera juteko. Estresik ez dao hemen".

dauan. Egualdi onakin topera betetzen da komedora, udaberri, uda zein negua izan. Baina urteren batian euri asko edo hotza itxen badau asko igartzen da". Bataioak, jaunartzeak, hildots jana... "jaunartziak ez dia lehen hezela. Lehen maiatzeko domeka guztietan egoten zian hazkaixak eta oin, aurren, domeka batian dia danak. Asko aldatu dia gauzak". Ezkontzak egiteko ez dute nahikoa leku, "120 pertsona edo sartzen dia komedorian baina gero musikuak ekarri eta dantzarako oso justu geratzen da".

Baseti atipikoa da San Pedro, animaliarik ez baitu, "baina ez dot faltan botatzen. Gustau ein bihar jatzu eta neri piska baterako animalixak gustatzen jatazen arren, dedikatzeke ez nuke nahi. Gustura bizi gera hola, lotura gutxiokin. Asteburuak lanian baina ostantzian nahiko libre".

SAN PEDRO

Auzoa: San Pedro

Paula Arrate,

70 urte; Inazio Kortabenia, 57 urte; Rosita Arrillaga, 50 urte;

Jesus M. Arrillaga, 45 urte; Milagros Laka, 40 urte; Joseba Arrillaga 17 urte eta Eneritz Arrillaga 11 urte.

Lur hedadura: 3 hektarea.

Esplotazioa: Jatetxea da eta ortua ere badu etxerako.

BIZEETA gainean **icsv**

ELGOIBAR-SAN MIGEL-MORKAIKO-HIRUITURRI SAN PEDRO-ELGOIBAR

DISTANTZIA: 15 kna
RAUPENA: 1h15'

San Migeletik gora Morkaikora iristen da eta hortik Hiruiturrira. Ur pixka bat edan eta indarrak berreskuratu ondoren, San Pedrorra jaitsiko gara mendiko bidetik.



Eskumako argazkian, Hiruiturri.

- **1** Plazatik irten eta Metalkua baseritik gora joko dugu, Errotatxo eta Zeleta (negutegiak di tuenan) baserriak pasatuko ditugu.

- **2** Zuzen jarraitu eta bidegurutze batera iritsiko gara. Zuzen hartu eta Aisti baserria ikusiko dugu. Aistiko baserri berria eskubitara utzi eta Aisti zaharrera helduko gara. Aurrera jarraitu eta ezker aldean Errezabal baserriarekin egingo dugu topo. Bidegurutze bat dago bertan, eta asfaltoa mendiko bide bihurtuko zaigu. Eskumara hartu, Erreketa aldera.

- **3** Mendiko pistatik irten eta zementozko pistara iritsiko gara. Hortik behera jo eta Altzate baserria aurkituko dugu. Foteroko ogiak egiten dituzte bertan. Alzatetik beherantz jarraituz, bidegurutze bat eskumara laga (hortik Altzate Txikira joango gineteke) eta San Migeleko errepidera aterako gara. Hortik San Migeleraino igo.

- **4** San Migeleko frontoitik gora jo, ia goraino. Belarreta, Mugerza eta Borrajen baserriak pasatu ondoren, bi bihurtunen ostean, eskumara Morkaikora joateko bidegurutzea topatuko dugu. Morkaikon gaude eta dagoeneko 45 bat minuto pasatu dira eta 6 km. eta 700 metro eginda izango ditugu.

- **5** Morkaikotik, (ez da zementozko pista hartu behar) mendiko bide batetik behera Uba Txiki baserriera ailegatzen da. Hor zementozko pista har-



tu eta berehala, lehenengo bihurtunea ikusten dugunean, eskuma aldean mendiko bidea hartu berri eta Hiruiturrira iritsiko gara.

- **6** Hiruiturritik San Pedrorantz abiatuko gara mendiko bidetik. Urkiola-Txiki ingurutik pasatu eta San Pedrorra doan zementozko pistatik jarraituko dugu.

- **7** Ibilbidearen azkenera iritsi gara. San Pedroko ohiko bidetik Elgoibarrera jaitsi besterik ez da falta.

Informazioa:
Andoni Etxeberria

Txistuak asko zor dio Ansolatarren dinastiari. 1821. urtean Inazio Ansolak Elgoibarko txistulari plaza atera zuenetik sei belau-naldi pasatu dira. Bosgarren belaualdikoa da Felix Ansola. Joan den domekan Elgoibarren izan zen, Euskal Herriko Txistularien Elkarteak antolatutako Txistulari Egunean omendu zuten txistularietako bat baitzen. Egun eder-rra pasata itzuli zen Markinara, Muguruzatarren arkua obretan zegoenez, argazki bat atera ez izanaren penaz. "Jangoikuak nahi badau, San Bartolomietan hor izango naiz, holako leku ederrian erretratua ateratzeko". Hauxe da Felix Ansola, bere Markinako etxean pozez eta hitz-jario ederrez hartu gaituen 84 urteko elgoibartarra.

FELIX ANSOLA

"Txistua jotzlak bizitza luzatzen dia"

—Gustura geratu zinen domekako omenaldiarekin?

- Oso. Ikusgarrixa izan zan goizeko kalejiria, mezatako dantzak, aurrekulari-xak eta dantzari-xak hain dotoriak, txistulari-xak, bazkari-xa,... eta dana zelako puntualidadiak, jendiak ein zian aprezixua...

—Hainbeste urte txistulari izan eta gero...

- Urte mordua, bai. 1821etik 1939 urterarte, Udaletzeko txistularien nomina guztietan Ansola jartzen dau. Gerriak erten zabanian Markinara etorri ginan. - **Txikitatik entzungo zen zuenean txistuaren soinua.**

Bazkalostian, periodikua baina lenao txistua izaten zan gurian. Amak pieza guztiak buruz zekixan. Behin, irratitxikan Loiolako jaialdi batian jotzen ari ginala entzuten ari zan ama. Juliani tanborra apurtu ja-

kon eta amak, "tanbor hori ez da guria, Julianek ez dau hola jotzen tanborra" esan zaban. Amak igarri!

Txapelketa mordo bat irabazi zenituzten.

- Pozik haundixena Donostian irabaztiak eman zigun, haura zan haundixena. Bilbon, Durangon eta Euban ere irabazi gendun. Oin Etxeberria futholarixa dan moduan ginan gu orduan. Epoka batian gu izaten ginan danian. Gero etorri zan Isidro Ansorena, oso ona, eta gero honen ilobia, Jose Inazio Ansorena, neretzako eon dan txistularirik onena. Aitxitxa ona izan zan baina bera hobia da, artistia. Honek eskola berrixa ekarri deu. Lengo txistularixa ez zan musikua eta oingua bai. Hori eskribitxia bezela da, ez badakizu ortografixarik jai dao! — **Anekdotak berezirik?**

- Goguan dakat, estreine-

ko jun ginaian Durangoko konkursora. Bigarren premi-xua eruan gendun. Jurauan-gana jun ginan eta esan ginon: "estreinako etorri gera eta konforme gaude bigarren izatiakin Baina gauza bat. Nun euki dogu fallua?" Eta eurak erantzun: "fandanguan zuek eruan dozuen martxia ez dao ondo". Harrezkero zenbat bider jo gendun fandangua, baina ondo!

— **Piezarik egin al duzue?**

- Guk ez, aitxitxa Roke zan konpositoria. Harek eindako pieza mordua dakadaz nik: fandanguak, biribilletak, arin-arinak,... kontrapasak ere bai.

—**Zein zen txistulari ofizialen betebeharra?**

- San Bartolomietan beti jotzen zan kontziertua. Txistulari plazia zakagunez, erromerixetan eta urteko domeka guztietan jo bihar zan Garizumako egunak kenduta. Beitxu ze gauza kurioso: neguan, domekero, getarako Malan eoten ginan. Herriko jauntxuak I Oetan mezetara juten zian eta txistulari-xak pasatzen zianian gak ziala jakitzen zaben. Baina ze ordu izaten zan bakarrik ez. Ohian zaozela, ze egualdi eitxen zaban ere jakitzen zaben. Egun batian gak eta 10erako ez baginan pasatzen baxeki xien eurixa zauala, txistulari-xek ez gendulako eurixakin jotzen!

—**Gaur egun jotzen duzu txistua?**

- Egunero. Behin, 74 urtekin ospitalera jun, etorri da medikua eta, 'respira como un chico de 30 años' esan zian. Eta nik erantzun: 'Claro, porque yo soy txistulari!'. Arnas estu bat ez dot sekula euki. Txistua jotziak bizitza luzatzen dia.

EESTEK

"Nlaisua eta lagun handia da Feliz, errespetua eta mirespena sortzen didan pertsona"

JOSE INAZIO SARASL: A. txistularia



MARTXOAN

•••• JAIOTAKOAK ••••

- Aitor Gurrutxaga Suarez (Martxoak 2)
- Iker Agirregomezkorta Carrillo (Martxoak 5)
- Andrea Fernandez Cobos (Martxoak 5)
- Ion Bereziartua Pedrosa (Martxoak 10)
- Leire Urzainki Zabala (Martxoak 13)
- Pablo Santamarta Rey (Martxoak 17)
- Sara Martin Ezziani (Martxoak 17)
- Alaitz Egaña Pagoaga (Martxoak 20)
- Danel Legorburu Goñi (Martxoak 21)
- Gorka Iriondo Salegi (Martxoak 21)
- Joseba eta Iker Lopez Bruno (Martxoak 26)
- Julen Leo Gilete (Martxoak 29)

•• e • EZKONTZAK •••

- Amaia Leiaristi eta Xabier Arriola Etxeberria (Martxoak 21)
- Eduardo Martin Moreno eta M. Jesus Marcos Anton (Martxoak 21)

•••• HILDAKOAK ••••


- Xabier Argarate Unzilla, 65 urte (Martxoak 3)
- Manuela Iriondo Zabala, 84 urte (Martxoak 5)
- Cesareo Andonegi Agirregomezkond 87 urte (Martxoak 21)
- Pedro M. Atristain Gabilondo, 75 urte (Martxoak 21)
- Manuel Aizpiri Zubizarreta, 69 urte (Martxoak 21)

Josela Arriola Bergaretxe (1904-1984)



- 1904ko otsailaren 8an jaio zen Mendaroko Itsasueta baserrian, Garagarza auzoan.
- 5 anai-arreba ziren, bera hirugarrena.
- Mendi puntan zegoen baserria eta ez zuen ikasteko aukera handirik izan. Ahal zuenean kalera jaitsi eta defendatzeko beste ikasi zuen auzoko lagunekin. Ezkondu arte, familiari laguntzen jardun zuen baratzean larrosak haziz, artaldea zainduz, soroan etab. Goizean goiz jaiki eta sarritan joaten zen Mendaro eta Elgoibarrera errekaduak egin eta, baserriko generoarekin ondo kargatuta, salmentara.
- Erromerietara joatea gogoko zuen. Gazte ezkondu zen Domingo Arriolarekin. Elgoibarko Kurutzea baserrira joan ziren bizitzera. 7 seme-alaba eduki zituzten,
- Senarrak, ezkondu aurretik eta ondoren ere bai, pare bat bidaia egin zituen Ameriketara. Josefari 3 operazio pasatzea tokatu zitzaion.
- Langile amorratua zen. Baserriko edozein lan kolpe egiten zion familia atera ahal izateko. Artaldearekin ibiltzen zen, baita Kurutzetako taberna atenditu ere. Bezero asko egin zituen herritarren artean, bai Gipuzkoan zein Bizkaian. Egun askotan 60 txuleta, 10 bildots eta 10 kilo tripaki saldu izan zituen. Bereziak izaten ziren Kurutzetako bildots erreak. Kurutzetan bertan erromeria egiteko ohitura zegoen sasoi hartan.
- AtTatera sarri joaten zen ume guztiakin. Sinesmenduna zen, San Isidroko elizara joateko ohitura zuen. Emakume atsegina eta hizlaria zen, oso borondatetsua.
- Sukaldaritza gustatzen zitzaion eta famatua izan zen langintza honetan. Josi egiten zuen baita gorotan jardun ere.
- 1984ko urriaren 11n hil zen 80 unerekin.

Juanito Gorostiza



ETXEBERRIA

Hileta zerbitzu

OSOA ETA 24 ORDUKOA

KUTXAK - TRASLADOAK - KOROAK

NORBANAKOEI ETA KONPAINIEI

zuzenduriko zerbitzuak.

Donostia eta probintziako eritetxe zentroetan ere bai.

Santa Klara, 16 20 870 ELGOIBAR

Tel.: (biltelia) 74 13 27 (etxekoa) 74 01 17 - 74 16 56 (mobila) 908 77 07 01



A

Argazki hau Lerungo futbol zelai zaharrearan aterata dago. Antonia Linaresek ekarri digu. 1960ko abuztuaren 14an futbol partidu bitxi bat jokatu zen: herriko lodiak argalen kontra. Erretratuko talde hau potoloena da.

Dudarik ez dago kilotxoren bat soberran duela batek baino gehiagok baina badago argalen ekipotan paper hobea egingo lukeenik ere (zazpigarren jokalaria ez

dago oso lodia, ez?). Beste batzuk, ordea, bete-beteak daude. Begira bestela, ezkerretik hasita, laugarren jokalariaren kamisetari; tripa aldean botoi bakarra baino ezin du Iotu. Argi dago umorerik behintzat ez zitzaizela falta elgoihartar hauei.

Ikus dezagun zeinek osatzen zuten talde hau:

Ezkerretik hasita: Pedro Arriola atezaina, Jesus Lizarralde 'Agarre', Linares, Maltza, Farias, San Martin, Bizkai, (...), Aranbarri, Potxoko tabernakoa eta Tomas Garcia (maisua),

San Martin eta Bizkai izen ezik, denak hilda daude.



**ELEKTRONIKA
ELEKTRAGAILUAK**

Ubitarte, 3
Tel-Faxa: 74 14 87

Ikus lezazue gure prezioak!

14"iako EDISON telebista mandoarekin	27.000 pta.
20"tako LAVIS bitolumna telebista	34.000 pta.
21"tako SANYO Pul-Secam telebista	43.900 pta.
251ako LAVIS bicalumna telebista teletextoarekin	55.000 pta.
28"tako PHILIPS telebista estereo, teletextoa, Pal-secam	99.900 pta.
LAVIS bideoa, 2 kabezalekin	29.000 pta.
RADIOLA bideoa, 4 kabezal, estereo nicam, Canui + eta Show View	49.900 pta.
Autoarentzako ALPINE irrati-kaseta, TDM 7543 M-	25.000 pta.
ALPINE konjuntua: irrati-kaseta, TDM - 7543 M, kargadorea eta 6 disko konpakto CHM - 5611	59.000 pta.

**Musika ekipo, garbigailu eta hozkailuak
prezio berezietan,**

Iñaki Konde, Madrileko 100 km.ko maratoian 11 ordu eta 22 minutoko sufirimendua

• Eskolarteko haurrentzako triatioia eta orienting-a

Bihar, zapatua, hilak 4, Eskolarteko kirol-jolas programaren baitan triatloi txapelketa egingo da Eskolarteko kiroltan aritzen diren neska-rnutileri zuzenduta. Larunbat arratsaldeko 15:30ean hasiko da lasterketa. Lehendabizi kilometro bat egin beharko da korrika Mintxeta inguruan. Ondoren, Mintxetatik Kiroldegira bitartean beste kilometro bateko ibilbidea bete beharko da bizikleta gainean. Azkenik, igeriketa proba izango da Kiroldegiko igerilekuan. Benjaminek 25 m. egingo dituzte; alebinek 50 m. eta infantil eta kadeteek 100 metro. Bizikleta eta kasakoa norberak eraman beharko du Mintxetara. Gainera, praka motzen azpitik bainujantzia eraman behar da eta igeri egin ondoren, aldatzeko erropa ere bai.

Igandean, berriz, Lehen Hezkuntzako 3., 4., 5. eta 6. mailetako neska-mutilentzako orienting ikastaroa egingo da San Pedro, Kalamua eta Arrate inguruetan. Goizeko 10:00etan izango da irteera Plaza Handian. Antolatzaileak Eskolarteko Kirol-jolas koordinatzaileak, Zuhaitz Astialdi Taldea eta Morkaiko dira.

• Tenis ikastaroak

Udal Kirol Patronatuak tenis ikastaroak antolatu ditu Olaizaga kiroldegiko pista berrian. Apiritaren 20an hasiko dira eta gazte eta helduei daude zuzenduta. Goizez zein arratsaldez izango dira eta prezioa 4.500 pta.koa da bazkideentzat eta 5.000 ez direnentzat. Izena emateko 74 44 15era deitu.

• Iaroll alternatihoen ikastaroa

Deba bailarako Udal Kirol eta Euskara Zerbitzuek kirol alternatiboen ikastaroa antolatu dute Eskola Kiroleko monitore, hezkuntza fisikoko irakasle eta interesa duen edonori zuzendua. Apirilaren 15etik 17ra bitartean frisbee, patinaia eta street hockey kirolak ikasteko aukera izango da Aretxabaletako Kirol Etxean. Izena emateko 79 64 61 zenbakira deitu.

Triaki Konde, Urgazi Triadoi Taldeko kideak Madrileko 100 km.tako maratoian parte hartu zuen joan den domekan, hilak 29. Zirkuitoa Vallecás auzoan zegoen kokatuta eta 10 kilometroko ibilbideari 10 itzuli eman behar zitzaizkion 100 kilometroak burutzeko. 88 lagunek izena eman bazuten ere, euria zegoenez 75 lasterkari baino ez ziren irten. Goizeko 7etan hasi zen

lasterketa eta 11 ordu eta 22 minuto beranduago amaitu zuen Iñakik ibilbidea. Lehenengo 50 kilometroak nahiko ondo egin zituen Iñakik, 4 ordu eta 50 minutotan. Zazpigarren postuan zihoan. Hortik aurrera hasi zen gurutzeta. Berak komentatu digenez, "asko sufridu naban, lasterketa erditxik aurrera batez ere, kalbario bat izan zan. Zirkuitua urbanua zan, aldapaz beteta eta gainera, kriston eurixa zauan. Kondizio benetan gogorrek zian, mendiko espedizio gogon-ak etortzen jatazen burura. Hankak busti eta gogortu ein jatazen. Min fisikua igartzen naban. Gainera, partehartzaile gutxi ginan eta askotan bakarrik aurkitzen nitzan, publikua ere gutxi zauan eurixa zala-ta. Eskerrak Maria Pilar Arriola, Asier Arrieta eta Iñaki Izagirre jun zian eta nerekin ein zituzten



95. kilometroan lhakiri laguntzen agertzen zaizkigu hiru elgoibartar: M. Pilar Arriola, Asier Arrieta eta Iñaki Izagirre.



azken kilometruak.

Eureri esker amaitxu naban karre-ria". Lasterketan maila handiko korrikalariak hartzen dute parte. Irabazlea hungariar bat izan zen eta 6 ordu eta 49 minutoko denbora egin zuen. Sailkapen nagusian Iñaki 33. lekuan iritsi zen.

Errekuperazioari buruz "gorputza uste dozuna baino lehenao erre- kuperatzen da", Ifiakiren esanetan. "Pare bat egun eta gero ondo aurkitxu naiz". Momentuz ez zaio burutik pasatu ere egiten datorren urtean partehartzea. "Oin hori esaten dot esperientzia oso gertu daukatelako baina igual hilabete batzuk barru beste modu batera pentsatzen dot". Datoren urtean parte hartu ala ez, gogo eta kapazitate izugarria erakutsi du Iñaki Kondek.

• Gipuzkoako Atletismo Txapelketarako sailkapena

Mintxeta Atletismo Taldeko Ana Etxaniz eta Nuria Revueltak, Gipuzkoako Atletismo Txapelketarako gubdeneko markak egitea lortu zuten martxoaren 28an Eibarren izan ziren infantil maileko probetan. 150 metrotan Nuria Revuelta bigarren geratu zen 21"56 ehunenekorekin. Ana Etxaniz, berriz, irabazlea izan zen 1.000 metrotan 3'38'rekin eta luzeran jauzian 4'46 metroko jauzia egin zuen, bigarren postuan geratu zelarik.

C. D. Elgoibarko zuzendaritza berritzeko bilera

Club Deportivo Futbol Elkartearen zuzendaritzak deitutako ezohiko bilera egin zen joan den astearte iluntzean. Gaur egungo zuzendaritzaren agintealdia amaitzear dagoenez, berritze prozesuaren beniamateko bazkideekin bilera egin zuten. 25 bat bazkide egon ziren bileran eta hautagai berriak behar direla aditzera eman zitzairen. Jose Ramon Zabala lehendakariaren esanetan, "hautagaiak lehenbailehen aurkeztia nahiko genduke. Apirilian eitxia erabaki dou bileria zuzendaritza berrixa ahal bezain pronto lanian hastia komeni dalako. Hurrengo denboraldiko gorabeherak prestatzen hasi bihar da". Zabalak adierazi bezala, oraindik ez da zuzendari-tzarako hautagairik aurkeztu baina aurrerao bateonbat animauko dala pentsau nahi dot. Hola ez balitz, erabaki bat hartu biharko dou, guk ja-



Zuzendaritza berria eratu behar dela aditzera eman zitzairen C. D.ko bazkideei.



rraitxu edo gairra Udaletxian planteau. Momentuz beste bilera bat egiteko asmoa dute h1 honetan bertan. Eguna zehazteke dago.

Altor Mugerza, Zuriñe Pole eta Maria Idiakenez Gipuzkoako Judo txapelkunordeak

Ibai Kirol Elkarteko Aitor Mugerza, Zuriñe Polo eta Maria Idiakenez Donostian jokatutako Gipuzkoako Eskolarteko Judo txapelketako finaleran bigarren sailkatu ziren. Aitor eta Maria 42 kiloz azpiko mailan aritu ziren eta Zuriñe 34 kiloz pekoetan. Orain Euskadiko Txapelketako infantil mailako emaitzen zain egotea besterik ez da geratzen, laister batean jokatuko baita lehiaketa.



KIROL ALBISTEAK

• Aste Santua Morkaikorekin

Apirilaren 9tik 13ra bitarteko opor egunak Kataluniako Pirinioetan pasatzeko irteera antolatu du Morkaiko Mendizale Taldeak. Vall de Aran-eko eskualdean mendi eta paraje ikusgarriak daude. Morkaikoko kideek Besiberri (3.014 m.), Punta Alta (3.014 m.) eta Tuc Colomers (2.984 m.) mendietara irteerak egiteko asmoa dute, besteak beste. Dena den, egunero mendi irteerak egin nahi ez dutenek paisaia zoragarriaz gozatzeko aukera izango dute. Joan nahi duenari, izen-ernatea lehenbailehen egitea eskatzen zaio, aterpetxean hartu behar diren plaza kopurua jakiteko. Izena emateko 74 02 97 zenbakira deitu edo Morkaikoren egoitzatik pasatu.

• Tximilindularitzako emaitzak

Lagun Taldeko txirrindulariek Antzuolako "Uzarraga Saria" lasterketan parte hartu zuten martxoaren 29an. Juan Ramon Bell6n bigarren sailkatu zen eta Oier Oregi seigarren lekuan. Elgoibarko Lagun Taldea lehenengo postuan geratu zen taldeka.

EMAITZAK

Futbola

Haundi 0 - Amurrio 1
Elgoibar 4 - Loiolako 0 (2. erreg.)
Pedrusko 2 - eibartarrak 3 (2. erreg.)
S. D. Eibar 5 - Elgoibar 1 (Inf.)
Mondragon 4 - Elgoibar 1 (Neskak)
Almen 1 - Elgoibar 1 (1. jub.)
Elgoibar 5 - Almen 2 (Kad.)
Bermeo 3 - Elgoibar 1 (E. L. jub.)

Idarraga Kafeak I. Saria

C.D.ko jokalaria erregularrena 97/98
Jokalaria Puntuak
1- Miguel Diaz 36
2-Gorka Guarrotxena 35
3- Karlos Madina 32
4-Eneko Barrenetxea 32
5-Ander fruretagoiena 25
6-Iker Atxabal 25
7-Jabier Gurrutxaga 24
B- Gaizka Lazarobaster 21
9-Unai Aranburu 19
10-Joseba Igartua 17
11- Koldo Agirregomezkorta 17
12-Xabier Alonso 11
13- Jon Argoitia 9
14- Mikel Elkoro-lribe 9
15- Igor Prieto 8
16- Aiert Zinkunegl 8
17- Aitor Trebirio 8
18- Mixel Badiola 6

Eskubaloia

Urola 13 - Unceta Elg. 23 (Kad. nes.)
Askanza 21-Pneumax Elg. 17 (Kad. mut.)
Pagoaga Elg. 27 - Usurbil 16 (Jub. nes.)
Askariza 30 - Tecnomeca Elg. 27 (Jub. mut.)
Bergara 21 - Elgoibar 25 (Seniorrak)

AGENDA

Futbola, Mintxetan

Larunbata, 4
15:30 Elgoibar - Lagun Onak (E. L. jub.)
17:30 Elgoibar - Lagunak (Neskak)
Igandea, 5
10:30 Elgoibar - Union Txiki (inf.)
12:00 Elgoibar - Arrasate (Kad.)
17:15 Elgoibar - Ilintxa (1. jub.)

Eskubaloia, Kiroldegian

Larunbata, 4
16:00 PneumaxElg.-Corazonistas (Kad. mut.)
17:30 Tecnomeca Elg. - Corazonistas (Jub. mut.)
Igandea, 5
10:30 Unceta Elg. - Bergara (Kad. nes.)
17:00 Elgoibar - Tolosa (Seniorrak)

Haritz Dantzari Taldearen 25. urteurrena Txistularien omenezko eguna

Haritz Dantzari Taldearen 25. urteurrenaren ospakizunak direla-eta, joan den domekan Euskal Herriko Txistularien Elkarteak "Txistulari Eguna" ospatu zuten Elgoibarren. 150 bat txistulari elkartu ziren eta egun osoan eurrak izan ziren protagonistak. Hildako txistulariak, txistulari ohiak eta oraindik direnak omendu zituzten Plaza Handian, Ansolatanak

bereziki gogoratuz. Haritz Dantzari Taldekoek Soka-dantza saioa eskaini zuten Udal Txistulari Taldekoek lagunduta. Eguerdia aldera izan zen bazkarian 200 lagun bildu ziren eta eguna amaitzeko, Haritzeko dantzariak eta Inazio Bereziartua Musikeskolako ikasleek dantza saio polita eskaini zuten Plaza Handian arratsaldeko 18:00etan hasita.



Goiko argazkian, omendutako txistulari guztiak eta agintariak. Beheko argazkietan, Haritz Dantza Taldekoak Soka-dantza saioan eta txistulariak meza ondoren eskainitako emanaldian.



ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkartea

BAZKIDEEN BATZAR OROKORRA

GAIEN ORDENA

- Lehendakariaren agurra
- 2- 97ko memoria
- 3- 98ko asmo eta aurrekontuak
- 4- Lehendakaria aldatzeko proposamena
- 5- Gaidera-erantzunak

Zuzendaritza Batzordea

Apirilak 7, astearlea

Arratsaldeko 19:00etan

Kultur Etxeko
hitzaldi gelan

INTERESEKO TELEFONOAK

3 ostirala

22:30 ANTZERKIA
Izenburua: "Xagu tranpa"
Antzezlanak: Txalo
produzioak
Herriko Antzokian

4 larunbata

15:30 ESKOLARTEKO
TRIATLOIA
Mintxetako aparkalekuan
eta Kiroldegiko
igerilekuan

19:00 KONTZERTUA
GAZTETXEAN
"Comando Tripontzi",
"T.A.D.", "Aputu" eta
"Munipas underbraung"
Sarrera doan
Antolatzailea:
Gazte Asanblada

19:30-22:15 ZINEA
"Abre los ojos"

20:00 SALATXO
ABESBATZAREN
KONTZERTUA
Parrokian

5 igandea

10:30 BANDAREN
KALEJIRA

12:30 BANDAREN
KONTZERTUA
Herriko Antzokian

19:30-22:15 ZINEA
"Abre los ojos"

1998-IV-3

6 astelehena

22:15 ZINEA
"Abre los ojos"

asteazkena

22:00 KONTZERTUA
GAZTETXEAN
Zazpiki taldea
Sarrera doan
Antolatzailea:
Gazte Asanblada

9 osteguna

19:30-22:15 ZINEA
"007 El mariano nunca
muere"

10 ostirala

19:30-22:15 ZINEA
"007 El mañana nunca
muere"

11 larunbata

19:30-22:15 ZINEA
"Pactar con el diablo"

12 igandea

19:30-22:15 ZINEA
"Pactar con el diablo"

13 astelehena

19:30-22:15 ZINEA
"Pactar con el diablo"

16 osteguna

19:00 "GERRA VS.
BAKEA"
ERAKUSKETAREN
INAUGURAZIOA
(Aurkezpen gidatua
gaztelaniaz)
Kultur Etxean
Antolatzailea: Talde
Antimilitarista eta
Zuhaitz A. T.
Hilaren 30era arte

22:15 ZINE KLUBA
"Kolya"

17 ostirala

19:00 GAZTE
ASANBLADAREN
BILERA
Gaztetxean

22:15 ZINE KLUBA
"Kolya"

OSASUNA

Anbulategia:

Larrialdiak	461111
Txanda hartzeko	743354
Planning-a	742950
Alkoholiko Anonimoak ...	740385
D.Y.A (anbulantzia)	464622
Gurutze Gorria	743864
Mendaroko Ospitalea	756264
Odol Emailak	743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak	740442
PESA (Eibar)	902 10 12 10
Taxi geltokia	740898

UDALA

Euskara Zerbitzua	744366
Udal Kirol Patronatua	744415
Kultura Zerbitzua	742158
Mendaroko Udala	756100
Ongizate zerbitzua	741008
Udaletxea	741050
Udaltzaingoa	741394

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra	741626
Kiroldegia	744415
Kontsumo Bulegoa ...	743088
Liburutegia	743525
Musika Eskola	742145
Mintxeta	744315
Parrokia	740842
Postetxea	741547
Gaztetxea	741357

ADINEKOEN ETXEA

San Lazaro Egoitza	740296
Zaharren Biltokia	740526

IKASTETXEA

Haur Eskola	74 21 41
HHI (EPA)	74 08 80
Herri Eskola	74 08 79
I. M. H.	74 41 32
Herri Institutua	
Arreiturre	74 02 67
Ezenarro (Meka) ...	74 44 80
Ikastola	74 44 41
Pilar Ikastetxea	74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN	74 41 12
El Diario Vasco	74 40 73
El Correo Español	74 10 82
Egin	10 84 21
Zazpiki irratia	74 34 74

• **Gaur, hilak 3, Agatha Christie-ren "Xagu tranpa" Herriko Antzokian**

TxaIo Produkzioak antzeztaldearen eskutik, gaur, ostirala, gaueko 22:30etik aurrera, Agatha Christie idazle ezagunaren antzezlana ikusteko aukera izango da Herriko Antzokian. Victoriar sasoiko ostatu batean gertatzen da istorioa. Neguko gau hotz batean, hainbat pertsona ostatura iristen dira aste-burua pasatzeko asmotan. Euretako bat hil egiten da eta polizia bat hiltzailea topatzen saiatuko da. Ostatua xagu tranpa bihurtzen da.

• **Kontzertuak Gaztetxean**

Larunbatean, hilak 4, Irungo lau talderen kontzertua izango da Gaztetxean arratsaldeko 19:00etan. Joko duten taldeak "Comando Tripontzi", "Trapicheo a destajo", "Apurtu" eta "Munipas underbraung" dira. Sarrera doan da. Hilaren. San, berriz, "Zazpiki" taldeak joko du. Ez da sarrerarik kobratuko. Kontzertua gaueko 22:00etan hasiko da.

• **Orloko Salatxo abeshatzaren kontzertua**

Bihar, hilak 4, zapatua, Orioko 'Salatxo' abesbatzak kontzertua emango du arratsaldeko 20:00etatik aurrera San Bartolome parrokian. Lehenengo zatian hiru pieza abestuko dituzte Agurtzane Albisua organojoleak lagunduta: "Funeral Sentences" H. Purcell maisuarena, "Tu es Petrus" H. Eslavarena eta Ch. Gounod-en "Gloria". Bigarren zatian eskainiko dituzten piezak arinagoak eta ezagunagoak dira; "Ojos claros serenos"; "Die Beredsamkeit";

"Ave Maxia"; "Habanera Divina"; "Las mafianitas"; "Pandur"; "Agurra"; "Galai bat" eta "Azken gorespina". Salatxo abeshatzaren zuzendaria Marina Lertxundi da. Salatxo abeshatza 1993an sortu zen eta 61 abeslarik osatzen dute. Apirilaren 16an, bestalde, Itxaropena abeshatza izango da Orion kontzertua emango duena. Nerea Ugartek zuzenduta, "Finlandia Himni", "Only you", "Itxaso" eta "Kaiku" obrak abestuko dituzte.

• **Bilboko manifiAstaziorako autohusa**

Presoak Euskalerriratzearen aldeko manifestuaren ildotik, igandean, hilak 5, manifestazioa izango da Bilbon. Elgoibartik autobusa antolatuta da. 10:30etan irtengo da Plazatik. Izena emateko ohiko lekue-tara zuzendu.

• **Udal Musika Bandaren kalejira eta kontzertua**


Hilaren 5ean, igandea, Udal Musika Bandak kalejira egingo du goizeko 10:30etan. Ondoren, eguerdiko 12:30etan, kontzertua emango dute Herriko Antzokian. Jose Antonio Osorok zuzenduta bost piezako saia eskainiko dute: "Castillo de Alrnansa" mar-txa, "Un dña en Viena" obertura, "Morricone's Melody", "La Gran Via" selekzioa eta "Jurassic Park", izen bereko pelikula-ko soinubanda.

• **Elgoibarko Izarra Elkartearen Batzar Orokorra**

Datorren asteartean, hilak 7, Elgoibarko Izarra Kultur Elkar-teak urteko Batzar Orokorra egingo du honako gai-ordena-rekin: lehendakaria-ren agurra, 97ko memoria, 98rako as-moak eta aurrekontuak, lehendakari al-daketarako proposa-mena eta galde-erantzun saioa. Bat-zarra arratsaldeko 19:00etan izango da Kultur Etxeko hi-tzaldi gelan.

•••••
El 111
||| 11 111
•••••

NE
A



Zuzendaria: Alejandro Amenabar
Antzezleak: Penelope Cruz,
Eduardo Noriega, Najwa Nimri..

Abre los ojos


Cesar, jairik jai eta arazo ekonomiko handirik gabe bizi den gazte atsegin bat da. Neska laguna dauka, Nuria, emakume berekoi eta nahiko ezegonkorra. Jai batean Sonia ezagutuko du, emakume sentsuala eta lotsati xamarra eta berarekin maitemintzen da. Baina Nuriarekin autoan doala, istripua izango dute eta Nuriaren aurpegia erabat itxuragabetuta geratuko da.

||| ■ ■ MI ■ ||| 111
•••••
1 1 1 1 1
■
•••••
1 1 1
•
1
•

ASTE SANTUKO MEZA ETA ELIZKIZUNEN ORDUTEGIA

	Hilak 5 (Erramu Igandea)	Hilak 6 (Aatelenena)	Hilak 7 (Asteartea)	Hilak 9 (Ostegun Santu)	Hilak 10 (Ostiral Santu)	Hilak 11 (Zapatua)	Hilak 12 (Pazko Domekal)
PARROKIAN	11:00 Prozesioa, bedeinkazioa eta meza 12:30 Meza	16:30/20:00 Aitortzak (Euskaraz)	16:30/20:00 Aitortzak (Gaztelaniaz)	19:00 Azken afariko ospakizuna 22:00 Jaunaren aurreko otoitza	17:30 Jesusen Heriotzaren elizkizuna 20:00 Gurutz Bidea	21:00 Pazko Bijilia	11:00 Meza nagusia eta prozesioa 12:30 Meza eta bataioak
SANTA KLARAN	9:30 Erranmen bedeinkazioa eta meza			17:30 Azken afariko ospakizuna 21:30 Jaunaren aurreko otoitza	11:30 Gurutz Bidea 16:30 Jesusen Heriotzaren elizkizuna	22:00 Pazko Bijilia	9:30 Meza
MADALAN	8:30/12:30 Meza eta bedeinkazioa	20:00 Aitortzak (Euskaraz)	20:00 Aitortzak (Gaztelaniaz)	19:30 Azken afariko ospakizuna 22:00 Jaunaren aurreko otoitza	10:00 Gurutz Bidea 17:30 Jesus Heriotzaren ospakizuna	20:30 Bazko Bijilia	8:30/12:30 Mezak
SAN LORENTZON	Hilak 8: Aitortza 20:00etan. Hilak 9: Azken Afariko ospakizuna 18:00etan. Hilak 10: Jesusen Heriotzaren ospakizuna 19:00etan.						

KONTRASTEAK



ERAKUSKETA
Apirilaren 16tik 30...

ELGOINANKEE KULEUR EIKE AN
:NNAER

• Gerra eta bakearen inguruko erakusketa

Apirilaren 16tik 30era bitartean, Elgoibarko Talde Antimilitaristak antolatutako "Gerra versus bakea" izenburuko erakusketa izango da Kultur Etxean. Inaugurazio ekitaldia hilaren 16an, osteguna, arratsaldeko 19:00etan izango da. Ondoren, erakusketari buruzko aurkezpen gidatua egingo da gaztelaniaz. Euskarazko aurkezpena, berriz, hurrengo asteartean, hilak 21, izango da.

TXANDAK

FARMAZIAK

- | | Egunez | | Gauetz |
|-----------|--------|-------------------|---|
| 4 | | Bidasolo | Anduaga |
| 5 | | Bidasolo | Anduaga |
| 6 | | Yudego | Yudego |
| 7 | | Zabaleta | Zabaleta |
| 8 | | Etxeberria | Etxeberria
(Errosario karean) |
| 9 | | Escala | Escala |
| 10 | | Escala | Escala |
| 11 | | Yudego | Yudego |
| 12 | | Yudego | Yudego |
| 13 | | Yudego | Yudego |
| 14 | | Etxeberria | Etxeberria
(Santa Ana kalean) |
| 15 | | Zabaleta | Zabaleta |
| 15 | | Etxeberria | Etxeberria
(Errosario kalean) |
| 17 | | Escala | Escala
(teguerdiko 2ak arte) |

OKINDEGIA

- 5 igandea** Zabaleta
9 osteguna Idarraga
10 igandea Doña Mercedes
12 igandea Eizagirre

ONGARRI

zine kluba



Kolya

Atzeniko filme onenari ematen zaion Osear saria eta urrezko Globo saria jaso zituen pelikula honek 96an. Ekialdeko gizartearen erorketan girotua, txekiar agintarien zapalkuntzaren pean hizi den biolontxelistazagun hatek hileta elizkizunetan jo behar du bizi-irauteko. Egun batean, errusiar aherats batekin ezkontzeko aukera suertatzen zaio. Emakumeak seme bat dauka eta honen sentsibilitateak musikoaren hihotza konkistatzen jakingo du.

Zuzendaria: Jan Sverak
 Antzezleak: Zdenek Sverak, Andrej Chalimon, Libuse Safrankova.

Lana

*ESKAINNTZA.

- Kamareroa behar da tabernarako. tr 74 27 22
- Neska behar da etxeko lanak egin eta umea zaintzeko. Tr 74 12 33 (arratsaldeko 20:00etatik aurrera)
- Emakumea behar da emakume zaharra zaintzeko. tr 74 30 91/ 74 07 86
- Etxeko lanak egiteko eta umea zaintzeko neska euskalduna behar da. sr 74 37 22 (goizeko 8:30etatik 10:30(letara))
- Pertsona bat behar da barran eta sukaldean lan egiteko. Ahal izanez gero esperientziarekin. zr 74 37 60

• ESKAERM

- Arratsaldeetan umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko neska eskaintzen da. zr 74 23 90
- Neska eskaintzen da haurrak zaindu edo tahernan lan egiteko. zr 75 60 42
- Goizez orduka lan egiteko emakumea eskaintzen da. tr 74 01 36 (arratsaldeko 20:00etatik aurrera)
- Emakume gaztea eskaintzen da etxeko lanak egin edo haurrak eta zaharrak zaintzeko. Informeeekin. z 58 40 31
- Neska eskaintzen da etxeko lanak egin edo umeak zaintzeko, Esperientziarekin, 13 908 67 05 70

Partikularrak

- Humanistikako klaseak emateko norhait behar da. tr 74 14 03
- Ingeles klase partikularrak ematen ditut. Talde txikiak. z 74 07 86
- Humanistikako klaseak hartuko nituzke selektibitateko. tr 74 09 85

Etxebizitzak

- Pisua alokatzen da Madrilan. Ikasleentzat aproposa. tr 74 31 56
- Pisu txikia edo buhardila bat alokatuko nuke. tr 74 43 10 (Cristohal)
- Etxea konpartitzeko pertsona behar da Elgoibarren. tr 989 35 73 70 (arratsaldeko 8etatik aurrera)
- Pisua salgai Urasandi 5-3an. Ganhara ere dauka. tr 74 13 57

Garajeak

- Marradun garajea alokatzen da pista beltzean 5.000 pezetatan. te 74 00 70 (gauez)
- Garaje itxia saltzen da Arregitorren. z 75 51 77 (Tere)
- Garaje itxia alokatzen da Leku-Ederren. tr 74 26 94
- Marradun garajea alokatzen da San Roke 5-7an. tt. 74 33 39

Saierosketak

• SALDIJ•

- ♦ Motozerra saltzen da. Husquarna 45. Nahiko berria. 25.000 pta. zr 74 11 29
- Aleaziozko 4 errobera saltzen ditut. Wolksvagen Polo autorako. 20.000 pta.tan. st 74 43 10 (Kitxo)
- Ezkongaiantzat bi soineko saltzen ditut. Kolore zuria dute eta 40 zentimetro, Prezioa hitz egitekotan. is 15 03 95

Bestelakoak

- Giltz sorta bat azaldu zen Ikastolan pasa den larunbatean, Eskolarteko kirolen ondoren. Galdutuenak dei dezala 75 60 42 telefonora.
- Hiru txakur "ratonero" emango nituzke. Hilabete dute. z 75 60 42

Agurrak

- Zorionak Alexander Lopezi hilaren 27an 18 urte bete zituelako. Guraso eta Nuria eta Jose anai-arreben partez.
- Zorionak Miren eta Inesi, Ines eta Mirenen partez datorren astean 15 urte beteko dituztelako.
- Zorionak Julene Leoni bere 17, urtebetetzean eta askoz gehiago bete ditzala, Lehengusuaren partez. Larunbatean ikusiko dugu elkar.
- Zorionak apirilaren 19an urteak beteko dituen M. Carmen Rosari. Familia osoaren partez egun zoriontsua izan dezala. Maitasun handiz musu haundi bat. Zorionak ama!
- Zorionak Elisabet Benitori ter urteak beteko dituelako. Ikastolako DBH leko nesken partez eta Pilar-eko mutilen partez.

Agurrak

- Zorionak Hasier Muruari mar-txoaren 28an 8 urte bete zituelako. Familia osoaren partez, hereziki Aitorren partez.
- Zorionak Dafneri eta hereziki bere gurasoei Julen hain guapo eta moreno jaio delako. Ikastolako mailako partez.
- Zorionak Unai Zubiaurreri hilaren 31n 6 urte bete zituelako. Guraso, arreba eta Miren eta Ne-rearen partez.
- Zorionak Eli, Eire eta Aneri hilaren lean, 3an eta 4an urteak bete zituztelako eta heteko dituelako. DBHko 1, mailako partez.
- Zorionak amama Begoñari hilaren 7an urteak beteko dituelako. Zorionak baita ere Ainhoari egun berean 5 urte beteko dituelako. Familia osoaren eta Usoako lagunaren partez.
- Hilaren 6an urteak heteko dituen Jose Luis Egañari zorionak familia osoa eta batez ere iloba Maria eta Andoniren partez.
- ♦ Zorionak seba Gonzalez hilaren 2an 8 urte bete zituelako. Guraso eta anaia Andoniren partez.



zu zergatik? "Que te hemos pillado...". Zorionak gela guztiaren partez!

• Nerea Her-viasi zorionak apirilaren 2an 8 urte bete zituelako. Guraso, anaia Iban eta familia osoaren partez.



• Zorionak Sergio Arroyori apirilaren 6an 3 urte beteko dituelako. Guraso eta aitona-amonaren partez.



• Zorionak Iker e a Aneri hilaren 2an 8 eta 12 urte beteko dituztela-ko, Familia osoaren partez.



• Zorionak amW Apirilaren 8an zure urtebetetzea izango da. Zorionak seme-alaba eta senarraren partez. Maitasun handiz egun zoriontsua pasa dezazula. Musu her-ro bat.

• Zorionak Cristina Conderi hilaren 12an 10 urte beteko dituelako. Egunduzko zoriontsu bat igaro dezazula guraso eta ahizpa Amaiaren partez, baita osaba-izeba eta lehengusu guztien partez.



+ Zorionak Iker Oñederrari apirilaren 12an 6 urte beteko dituelako. Familiaren partez.



• Kaixo Ines. Madalako komunak aproposak al dira zuretzat plof! egiteko? Zorionak zure lagunaren eta ejetibito italiararen partez.



• Zorionak Ira-txe Iriondori hilaren 4an 20 urte beteko dituelako. Anaia Aritz eta familia osoaren partez.

• Zer liziar? "Karero" horre-kin "Txitarro-ko" atezaina izan nahi al du-zu? Ez haserretu hau ikusteant. Zorionak gela guztiaren partez!



• Zorionak Itziar Leiaris-teri apirilaren 8an 15 urte beteko dituelako. Fam-ilia osoaren partez.

GARAY




HARATEGIA
URDAITEGIA

San Frantzisko, 9 • Tel: 74 13 92


Etengabe berritzen
eta modernizatzen
kalitatearen eta
bezeroaren mesedetan



San Jakoboak



Tournedo



Oilasko betea



Flamenkinoak

BETEAK **eta** **URDAIZTATUAK**

Etxean landutako
espezialitate berriak:

TXAHAL **OKELADUNAK:**

- Eskargot-a
- Tournedo
- Redondo urdaiztatua
- Aleta betea
- Fondue
- Flamenkinoak
- San Jakoboak
- Medailoia
- Cordon Blue
- Proupietas
- Okela pastela

ILASKO **HEZURGABETUA:**

- Urdaiazpiko eta gaztaz

betetakoak

- Gazigozo betea
- Betetako tropikala
- Izter betea
- San Jakoboak
- Melon Face

TXERRI OKELA:

- Eskargot-a
- Ukondo betea
- Ehiztari txuleta
- Palpitoia
- Solomo urdaiztatua
- Solomo betea
- Brotxetak

Produktu hauek aurrez eskatzea gomendatzen dizugu, kontserbante eta eransgarri naturalak daramatzatenez, kontsumorik onena epe motzean izaten baita.



LWranburti,

San Frantzisko, 26 • Tel: 74 25 35

Bitxien berriztatzea dela-eta,
ERAZTUN eta BELARRITAKO kopuru
mugatu bat ERDI PREZIOAN jarriko
ditugu astelehenetik aurrera.



Gabonetan zozketaturiko urrezko bi erlojuen irabazleak
Elisabeth Gallardo Cantero eta Ana Rodriguez Cid izan dira.
Mila esker bezero guztiei eta ZORIONAK irabazleei!

- Informatika
- Klase partikularrak
- Kontu eta merkatal gestioa
- Mekanografia



JAKIN

a k a demia



Arregitorre, 6 (Mekanika parean)
Tel: 74 08 95 ELGOIBAR

Santalaitz, 6 • Tel: 76 00 68 BERGARA

TaIde murriztuak
Klaseak goizez eta
arratsaldez